

# hariari tiraka

## ALFONSO MARTINEZ LIZARDUIKOA

Euskal Zibilizazioa liburuaren  
egilea



### «Kontrakoak baino aldeko gehiago ditu liburuak»

Lehen argitaraldiko aleak  
agortu dira dagoeneko.

■ **Gizakia euskal-akitaniar  
lur eremuan egin zen  
taxuzko kulturaren jabe,  
zure liburuan diozunez.**

Hiru datu zientifiko hartu  
ditut kontuan: arkeologikoa,  
linguistikoa eta genetikoa.  
Datu horiek kontuan hartuta  
egindako mapa eremu horre-  
tan egokitzan da, eta garai  
hartaraino irits gaitzeko.

■ **Zure liburuaren kontrako  
hainbat kritika kaleratu  
da espainiar zein euskal  
komunikabideetan.**

Kritikak iritzi pertsonalak  
izan dira oro har, subjektibo-  
ak. Hala ere, gehiago izan dira  
aldeko iritziak. Kontra jarri  
direnak gutxiengo dira,  
Espainia inperialistako orde-  
zkarriak eta Madrilekin bat egi-  
ten duten euskaldunak.  
Lehendabiziko kasuan,  
argudiorik gabeko irainak  
egin dituzte. Datu objektibo  
zientifikoaren gainean euskal  
hipotesi propio bat eraiki dai-  
tekeela ikusi dute, euskal  
zibilizazioa izan zela, eta gure  
herriak entea baduela geroari  
begira bereizkuntzak egin  
ahal izateko. Bigarrenek, bel-  
durra diote Euskal Herritik  
berezko eredu bat sortzeari,  
nire ustez.

■ **Sortu duzun hipotesia era-  
bat berria da.**

Hori da liburuaren gauza  
garrantzitsuena, gauzak begi-  
ratzeko bestelako ikuspuntua  
sortu duela. Datu objektibo-  
ekin sortutako egitura sinesga-  
rri batzuk dira hipotesiak,  
ikerketak lerroak. Alde horre-  
tatik oso pozik nago, eztabai-  
da handia sortu delako. Jen-  
de asko ari da irakurtzen libu-  
rua, eta talde batzuk lanean  
ari dira ikerketak zehatza goak  
egiteko.

Ainhara Zuazabeitia  
DONOSTIA

# iritziak

## zuzendaritari

**OHARRA:** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni  
makina idatzitako 15 lerro baino luzeago idaztea gutun  
hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NA-  
Nen zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez ge-  
ro, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erda-  
raz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko. Gutunak faxez,  
posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke (helbide  
elektronikoa: egunkaria@jalgi.com).

### Zorionak presoiei

✍ Gudariok, borrokariok, gezurraren suaro-  
tzek isiltzen ahalegintzen diren ezdarriak,  
kartzelarekin askatasunaren artisauen eskola egi-  
ten aritzen zareten arren, ziegetako gau ekaizsue-  
tako denbora beltzak garbitzen lagunduko dizuegu  
eta, EKHIk betetzen duen baso nabarrak zabaldu  
inperioak ezeztatzen dizkigun eskubideez eta zeuon  
askatasunaz betetzeko. Askatasunean eta Euskal  
Herri subiranoan laster elkar besarkatuko dugune-  
ko eguna arte eta, zorionak negu eta urtatsen eto-  
rrean Euskal Preso Politiko guztioi, batez ere Elias,  
Igone eta Juan Pablori eta, nola ez hiri, Txotxe.

● **Juan Antonio Goienetxea**  
BERMEO (BIZKAIA)

### Euskaldunok ezin pozik egon

✍ Harira zuzen-zuzenean joanez, esanen dut  
hitz egin nahi dudala azken buruz buruko pi-  
lota txapelketaren finalari buruz. Deus baino lehen  
eman nahi dizkiot nire zorionik handienak Ruben  
Belokiri, eta adorea eskaini Patxi Eugiri gogoia bizi-  
tzeko.

Hau esandakoan, eta goiburuak dioenez, adiera-  
zi nahi dut munduko euskaldunok ez dugula arrazoi  
gehiegirik pozik egoteko, pilotaren gai honi dagokio-  
nez. Eta zergatik? Begira, bada, Asegarce enpresak  
eta ETBk ez dute elkar ulertu, eta azkenean, TVEk  
eman zuen finalaren partidua zuzen, eta berak  
soil-soilik, erdaraz, jakinal!

Finalaren aurreko egunetan, komunikabide asko-  
kok honako hau zioten: «Azkenean euskal herritarrek  
ikusi ahalko dute finaleko partidua!». Oso ongi. Eta  
orain nik galdetzen dut: «Eta, non gelditzen da per-  
tsona pilotazale euskaldunen hizkuntz eskubidea,  
e?». Izan ere, final hori ikusi nahi izan zuten euskal-  
dunek ez zuten aukerarik izan hizkuntza hautatzeko  
era normalizatu batean; edo gaztelaniaz edo bat ere  
ez. Badakit, beti gelditzen da beste baliabide bat, tele-  
bistari ahotsa kendu eta Euskadi Irratian entzun,  
baina berriz diot, hori ez da jokabide normalizatu,  
eta modu horretan, gehienetan bezalaxe, erdaldunak  
ateratzen dira irabazle eta euskaldunak, aldiz, gal-  
tzaile. «Inperioak» beti zanpatzen ditu bere menpeko-

ak. Beraz, bada, berriz ere «suspentsioa» eman behar-  
ko diegu Asegarce, Aspe eta ETBri.

Baina badaude gauza gehiago oraindik. Alde bate-  
tik, Asegarce enpresak dio pilota-kirolari eman behar  
zitzaiola bultzada handia eta mundu osora hedatu  
behar zela. Ederki, baina zer pilota mota zabaldu  
nahi ote dute mundu osora, euskal pilota ala «Espai-  
niako pilota»? Orain arte, behintzat, nahiz eta Ase-  
garce enpresari euskaldun asko dagoen, euskara-  
ren eta euskal kulturaren alde ez dute deus ere egin.

Bestetik, lehenbailehen «Espainiako Txapelketa»  
bihurtu beharko litzateke «Euskal Herriko Txapelke-  
ta», eta txapeletan berreskuratu beharko liriteke  
euskal hitzak eta inskripzioak, bestela irrigarriegi  
gerta daiteke nahaste-borraste hau guztia.

Bukatzeko, azken ideia bat azpimarratu nahi dut,  
alegia, Patxi Eugi, Ruben Beloki eta abar, txapeldun  
gertatu direnean, zoritxarrez ez diete aukerarik emate-  
n euskal komunikabideei beraiekin euskaraz ari-  
tzeko. Ea, noiz animatzen diren benetan euskara  
ikastera. Gazteak dira, sasoiaren daude, eta oraindik  
froga dezakete Antton Maiz bezain euskaldunak dire-  
la.

● **Xanti Begiristain**  
IRUÑEA

### Euskaldun ehizan

✍ Madrilén jazotakoa goiz zein belu etortekoa  
zan. Espainiagaitik hil behar izan dabe eus-  
kal semea, euskal herritarra. Euskal umeari gorroto  
handia, sakona, zaharra deusoe han.

Haize baltzari eragin eta erabili izan deusoe, ur-  
teetan, gizaldietan, gurata eta jakinaren ganean,  
maisuriko. *A por ellos*-koek ondo be ondo dakie hori.  
Euskaldunari deusoen gorroto historiko zaharra  
biztu baino ez dabe egin, behin eta barriz. Eta hori  
guk be ondo be ondo badakigu. Xenofoboak izan di-  
ra beti. Xenofoboak dira orain. Ez dabe inoiz eta ezin  
dabe, orain be, euskalduna euskaldun ikusi. Lagun  
hurkoaren nortasunagazko «tolerantzia» intoleran-  
tzia, azken baten. Horregaitik garbitu behar dabe  
euskalduna. Espainiagaitik euskal semea hil daben  
lez. Hori *A por ellos*-koek ondo be ondo badakie. Eta  
hori berberori da, hatan be, batzuk eta besteen, he-  
mengo eta hangoen arteko aldea.

Euskalduna, euskal herritarra ehizan egin gu-  
ran ibili dira. Baita lortu egin be. Honetan familiak  
esandakoakaz bat nator bete-bete. Beioake he-  
metik hildakoren familiari eta lagunei besarkadarik  
beroena.

● **Iniaki Martiartu**  
BAKIO (BIZKAIA)

## seiko urrea

### Andres Urrutia



bat, urtean zehar jaso dugun  
mesede baten trukeordaina  
emateko.

Pagaburua ere, emateko modukoa izaten  
zen lehena gabon inguruan, antzinako base-  
rri bizimoduan. Orduantxe zetozen baserri-  
tarrak kalera, jabeek urteko errenta pagatze-  
ko asmotan. Egun, gizarte hau erabat tekno-  
logiko bihurtu eta, oiloak eta kapiok esku-  
tik eskura ekarri beharrean, Interneten bi-  
dezko ordainketak gauzatzen dira.

Argi, zarata, trafiko eta jendarteko harat-  
honata igaro ondoren, betiko bizimodua  
beste behin ere gureganatzen dugun horre-  
tan, erkaketak egin eta seguru asko, lehe-  
nengo puntura etorriko gara, hots, datorren  
urtean harri berean oztoporik egingo ez du-  
gulako uste oso horretara.

Harri edo osin, zulo nahiz horma, heldu  
den urtearen leku berean zangotrabatzerik  
ez egitekotan, oraingo damutze ez da nahi-  
koa izango. Gizaki garbatuak gogo eta fede-  
onez beterik egon arren, asmakuntza ederrik  
beharko du betikoari, berriz ere, ihes egite-  
kotan.

Gabonak; horra hor, ez-ohiko zuhaitz

kontu, txanpan hotsa eta opari piloak. Beha-  
rrezkoa ere bai, nonbait, gizakiari halako al-  
diak etortzea, abiada hartu eta abiadura be-  
tean ibili, norabideak zertu nahian.

Zergintza horretan, zeresanik ez, luze,  
aparte eta urrun daudenentzat gomuta laz-  
tana. Oroit gara, urtero legez, noizbait ezagu-  
tu eta gure bizitzaren aldikada labur nahiz  
luzetxoagoan bidaide izan ditugun horiez.

Zozketaren zozketaz, dagoeneko gauza  
jakinak —eta ahaztuak— dira guretzat zoria-  
ren gainbeherak. Agian, errege bueltan edo,  
ostera ere halako bidezidorretan mentura-  
tzeko tenorean izan gaitzeko.

Artean, esan dezagun, molda dezagun  
gurea. Jakina, urruneko intxaurrak hama-  
lau, gerturatu eta lau.

Biziki erreplikatuak dizkigute, ia-ia asper-  
tu arte, andrazko eder, gizonezko zoragarri  
eta Papa Noel direlakoan irudi ohiak. Etxean,  
ostera, Olentzero zein ume Jesus nagusiak.  
Aparteko intxaurrak baino, bertan bertoko-  
ak, alegia, intxaur-saltsa gozoa euskaldu-  
non dastagarri.

Egin dezagun apustua: gabon zorion-  
tsuak eta intxaur-saltsa ugaria!

## EL PAIS

EDITORIALA  
1998ko abenduak 23

### Indultua orain

Auzitegi Nagusiko Bigarren  
Salak, Mareyren sententziaren  
ondoren bi bloketan banatu eta  
gero, berriro irizpide bateratua  
lortu du, eta Barrionuevo eta  
Veraren indultua eskatu du.  
Txosten horrek askatasunera  
hurbiltzen ditu bi horiek, zigo-  
rra 10 urtetik 40 hilabetera jais-  
tean hirugarren gradua esku-  
ratu ahal dutelako. Auzitegi  
Nagusiaren txostenak nahikoa  
oinarri juridiko ematen dio  
Gobernuari zigorra bi heren  
gutxitzeko. Alabaina, behingoz  
indultu osoa ematea egokiago  
litzateke.

(...)Vera eta Barrionuevori  
leporatzen dizkioten delituak  
oraindik preskribitu gabe dau-  
den arren, duela 15 urte gerta-  
tutako egintzetan oinarritzen  
dira, eta badira 10 urte GAL  
desagertu eta mehatxu izateari  
utzi ziola.

(...)Konparaketak egitea  
gustuko dutenek jakin behar  
lukete ETA oraindik existitzen  
dela; duela hiru hilabetetik  
hona inor hil ez badu ere,  
oraindik komandoak prest  
ditu, eta Jarraiko infanteriak  
PPko zinegotziak intimidatzen  
jarraitzen du. Eta, hala ere,  
hainbat indultu neurritik hitz egi-  
ten ari dira zenbait. Eta ez zaie  
damu kolektiborik eskatu.

(...)Espainiako bizi politiko-  
ak normaltasuna berreskura-  
tzeko modurik badago: Gober-  
nuak Vera eta Barrionuevori  
indultua eman diezaiela orain.